



Zarautzen, 2014ko irailaren 19an

Alkate jaun agurgarriari zuzenduta:

GAIA

Udal Gobernu eta hedabideak

ZIOA

Legealdia hasi zenetik, Udal Gobernuak ez du gure ustetan publizitate instituzionala arautzen duten printzipioak bete. Iragarki ofizialak, kanpainak eta tankerakoak hedabide jakin batzuetan baino ez ditu publikatu, besteak erabat baztertuz. Diskriminazio argia da hori, informazio eskubidearen eta informazio aniztasunaren aurka doana. Berdintasuna, proportzionaltasuna eta eraginkortasuna ez dira errespetatzen, eta herritarrengana iristen saiatu beharrean, diru publikoa Udal Gobernuan dagoen alderdia txalotzen duten hedabideetara bideratzen da. Gertaera larria da, gardentasunaren eta Gobernu Onaren aurka doana.

Gure Udal taldeak susmoa du harrez gero egoera ez dela aldatu. Susmoa, diogu, Udal Gobernuak ez digulako publizitate instituzionalaren banaketari buruzko daturik helarazi. Baina prentsa, telebista eta irratia jarraitzen dugu, eta ikusten dugu aldeko hedabideen diskriminazio hori bere horretan jarraitzen duela.

Bestalde, azken bolada luzean, hedabide jakin batzuen aurkako eraso sistematikoak ere ikusten ari gara, interneten. Horien artean, herriko kazetari batek jasotakoak. Tuitek kontu iraingarri anonimoen ugaritzearen aurrean, Udalak badu zeresana. Herri honetan ondoegi dakigu, tamalez, kazetari, hedabideetako arduradun, eta hedabideen aurkako erasoak pairatzea. Aurrekariak hor daude, kolore askotakoak gainera, eta ez ditugu oraingoan gogora ekarriko. Adierazpen askatasuna babestu behar dugu.

Azkenik, euskararen sustapena ere aipatu beharra dago. Udal honek mila modutara adierazi du euskararekiko duen atxikimendua, ofizialki, etxe barruan eta kanpoan ere. Beraz, uste dugu hedabideekiko politika ere konpromiso horren isla izan behar duela, hau da, euskarazko hedabideak babestu eta bultzatu behar direla kolokan gauden honetan. Tamalez, murrizketak izan dira dirulaguntzetan, kasurik larriena Erlo Telebistarena delarik. Telebista zarautztarra, eta

euskarazkoa.

Guzti hori dela-eta, honako eskaerak luzatzen ditugu:

### MOZIOA

1. Zarauzko Udal Gobernuari dei egiten diogu, publizitate instituzionala banatzerakoan, berdintasuna, aniztasuna, eta informazio eskubidea errespetatu ditzan, eta bere aldeko hedabideekiko faborezko tratuari amaiera jar diezaion.
2. Zarauzko Udal Gobernuari dei egiten diogu herriko zenbait kazetari eta hedabideen aurkako erasoen aurrean aurkako jarrera azal dezan, eta adierazpen askatasunean oinarritutako elkarbizitza sano eta normalizatu baterako neurriak har ditzan.
3. Zarauzko Udal Gobernuari dei egiten diogu euskarazko hedabideak bultzatu eta babesteko plangintza abian jar dezan, bereziki herrikoak direnean, hala nola Erlo Telebista edo Urola Kostako Hitza.



**Imanol Lasa Zeberio**

*EAJ-PNVren Udal taldeko bozeramalea*